

Eromenaren Mendietan

H.P. Lovecraft

Literatura Unibertsala

Itzulpena: Ainara Ruiz Benito



Hainbeste urteren buruan, Lovecraft-ekin berriro topo egitea atsegina da, eta gainera oraingoan euskaraz. “Cthulhu” mitoak sortu zituen idazle original hau lehen aldiz irakurri nuenean oso gaztea nintzen. Garai hartan irakurle bizargabe eta esperientzia eskasekoa nintzen, literaturaren egitekoetan gutxi prestatua. Baina Lovecraft-ek erakarri egiten ninduen; mitoen sortzailearen inguruan mito bat sortuta zegoela uste dut, eta hori ere beste erakarpen bat gehiago zen; harengan bazegoen zerbait “underground”, idazle “madarikatuaren” zerbait, irakurle-belaunaldi bat liluratu egin zuena. Gaur egun, ordea, ez naiz jada irakurle gazte bat, ez zaizkit gehiegi interesatzen ez idazlea ez hura inguratzen duen mitoa, haren obra baizik, eta bereziki, esku artean dudana. “Eromenaren mendietan” Lovecraft-en kontakizunik onenetako bat da, diotenez, eta liburua bi aldiz pentsatu gabe gomendatzen diet ondo eginiko lana gogoko duten eta literaturari buruz kontzeptu txukun eta kultua duten guztiei; areago, esan daiteke ukitu erudito eta guzti daukala, oso ondo dokumentatuta baitago (geologia alorreko deskribapenak ditut gogoan bereziki, e.a.). Beharbada, Lovecraft-en ahulezia bere “gehiegizkotasun formala” izan daiteke –kontakizunaren eta berezko misterioaren artean halako orekarik eza, nolabait esateko–, hau da, kontaktu nahi duenaren muinera iristeko buelta askotxo ematen ditu, eta azkenean horra iristen denean, misterioa begi aurrean jartzen digunean, irakurlea zertxobait dezepzionatuta geratzen ez ote den nago... Izaki ikaragarri baten presentzia erdikusten uzten zuten txinatar itzalen antzezpena zela-eta denbora luzez bihotza airean izan eta gero, kontakizunaren muina den izaki ikaragarri hura azkenean begi aurrean azaltzen zaigunean... izakitxo bat agertzen zaigu, garaiera erdikoa edo, txinatar itzalen jokoek aditzera ematen zuten bezain izugarria ez dena... Horrez gain, giza emozioa, hau da, pertsonaiek emozioen munduan gehiago inplikatzeari falta zaiola esango nuke, azken finean pertsonaiak eurak dira kontakizun baten sakontasuna markatzen dutenak. Alde horretatik, Lovecraft hotza da, bere pertsonaiengandik –eta beraz, berarengandik– urruna da. Nolanahi ere, bihar esango balidate Lovecraft-en beste kontakizun bat euskaraz daukagula, liburu-dendara trosta bizian joango nintzateke, bai horixe. Ziur aski, Lovecraft-en mundua ezin da “Eromenaren mendietan” liburuaren arabera soil-soilik epaitu, zeren, kontakizun ona bada ere (idatzi zituen onenetako bat, omen), ez baitugu ahaztu behar obra zabalago baten egilea ere badela, eta obra hura harilduz joan zela armiarma berea harilduz doan bezala...